

GURE ENPRESAREN KOSTUAK

Guk gure negozioa aurrera eramateko hainbat kostu edukiko ditugu. Batzuk finkoak izango dira, hau da, hilero berdinak izango dira; horien artean, langileen soldatak, alokairua eta baliabideak. Beste batzuk, aldakorrak izango dira, hau da, ekoiztutako produkzioaren arabekoak izango dira.

- Kostu finkoak

	PREZIOAK	KOPURUA	KOSTU TOTALA
Langileen soldatak	1500€/pertsona (bataz beste)	x5	7500€
Alokairua (ofizina)	400€/hilabete	x1	400€
Baliabideak (argindarra, interneta...)	~300€/hilabete	x1	300€
Muntairako tresnak	20€	x1	20€

- Kostu aldakorrak

	PREZIOAK €/unitateko
Metalezkoak	3€
Plastikozkoak	1€
Argi infragorriak	15€

Gure enpresak eskainiko dituen produktuak ez dira low-cost izango, enpresa berria garenez oraindikan ezinezkoa zaigulako prezio baxuko ondasunak eskaintzea, hasiera batean irabazi nabarmen batzuk edukitzea beharrezkoa iruditzen zaigulako.

Gure enpresa, oro har, kalitate oneko produktuengatik nabarmenduko da, lehenago esan bezala hasiera batean prezio baxuak edukitzeagatik nabarmentzea ezinezkoa izango delako. Bestalde, gure negozio eredu, helburutzat bezeroari eskaintzen zaion produktuari garrantzia ematearen ingurukoa da, beraien ongizatea bermatu nahi badugu, ez gure enpresak ahalik eta etekin handienak edukitzea.